

panpanoZIRI

2023ko abendua

aresoko hizkaria

KANPOAN ONGI, HERRIAN HOBEBEKI

JOSE RAMON TREKU

OARSOALDETIK ARESORA

BIDAIA: ANE BARAIBAR ITALIAN

ARESOKO AZERIAREN BIDEA

ARESOKO HITZ KUTTUNA

DENBORA-PASAK

ETA GEHIAGO...

zenbaki
honetan

Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.eus

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Aldizkaria idatzi eta osatu duen lantaldea:
Ana Goñi, Jaione Olazabal eta Juana Mari Saizar.
Laguntzailea Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.

Argazkiak:
Aresoko herritarrak, Ane Baraibar, Josefina Treku eta Ainhoa Treku, Ainara Ormaetxebarria, Aresoko Nazabal eskola eta Jaione Olazabal.

LG NA 2710-2017

TREKU ZENA, ARTEA ETA KASTA 3-7

MUSIKAREN MAGALEAN HAZITAKOAK 8

OARSOALDETIK ARESORA 9-13

ARESOKO AZERIAREN BIDEA 14-15

GARAI BATEKO ARESO 16-17

JUBILOTEKA 18-19

BIDAIA: ANE BARAIBAR ITALIAN 20-25

ARESOKO HITZ KUTTUNA 26

DENBORA-PASAK 27

MOTZEAN 28

Treku zena, artea eta kasta



Jose Ramon ezagutu zutenei galde-tzen hasi eta denek gauza bera esaten dute... "gizon hue fenomeno bat zen!", "abile denen, artiste latza! Nik ez det bizi guzin Treku bezelako pertsonajeik ezautu!", "ikeragarri intelijentea zen! terriblea!" "Jenio bizikoa zen baina inguruko guztiekin ongi moldatzen zena".

Jakin-minak jota mahai inguruan bildu gara Josefina Treku alabarekin, Miguel Zabaleta suhiarekin eta Jose Manuel Olazabal ilobarekin. Ez daukate ahaztuta Jose Ramon, ez horixe! hamaika kontu eta pasadizo kontatu dizkigute, arratsalde ederra pasa dugu zinez kontu-kontari...

Jose Ramon Treku Zubiri

Aresoko Txuinea baserrian jaio zen 1900eko azaroaren 24an. Jose eta Maria Antoniaren semea zen eta sei arreba eta anai bat izan zituen (Joxe Miel anaia oso gogoan izaten zuen beti, 16 urterekin gaixotuta hildakoa zen). Gerra ondorean Azpikoetxea erosi eta hara pasa ziren. 42 urterekin Candida Arrayagorekin ezkondu zen, Lobidin jarri ziren eta hiru seme alaba izan zituzten, Jose Mari, Jose Joakin eta Josefina.

Berak esan ohi zuen bi eskuek dituzten behatzak adina alditan ez zela eskolara joan baina bere suhiak esaten duen bezala, "deskuidoan eskola joan izandu balitz auskalo ze in izango littuzken!". Bizikletaz ibili ohi zen hara eta hona eta gerora motoa erosi zuen, "Osa" motoa. Oletse eta biek bana erosi zuten eta no-bedadea izan zen herrian.

Edozertarako balio zuen horietakoa zen; zurgintzan eta iturgintzan aritzen zen, etxea edo obraren bat egin behar zutenek berari galdetzen zioten non edo nola egin, ura nondik hartu... eskolako itzuzurak eta estufa konpontzen zituen (eta bidenabar irakasleari alabarengatik galdetzen zion, "¿esta chica ya vale para aprender escuela?"), Elizako erlojua ere berak konpontzen zuen... minak aurkitu eta ustiatzen lan handia egindakoa izan zen. Lanbide askotan abila izanda kanpoan lanpostu bat baino gehiago eskaini izan zizkioten baina ez zuen inora joan nahi izaten, berak zioen ardi asko joan izan zirela larre hobeen bila eta goseak hil...



Jose Ramon Treku arrebeekin eta gurasoekin.

Buruz oso azkarra zen nonbait, garai hartarako oso aurreratua. Alabaren hitzetan "kubikajea buruz egiten zuen ziztu batean, dezimaldun zenbakiekin eta guzti! gu paperean kontuak ateratzen hasi eta esaten zigun, "zuen denboa eskolan ta hoi itteko papera behazue?".

Lobidiko telefonoz hitz jarria...

Josefinak dionez herriko etxe ia gehienetan ez bezala, Peunea eta Apezzeneko zentralaz gain beti ezagutu izan zuten telefonoa Lobidin. Han aritzen zen nonbait Treku zena euskara-gaztelera nahasiz jarri batean eta gaztelerez oso ongi egiten ez zuenez, seme alabak ondoan zuzendu

nahian. Hark orduan "ixo!" esaten omen zien, eta telefonoz bestalde zegoenari: "aqui chabales enseñando". Gaztelerez gaizki, baina lotsarik ez eta isildu gabe aritzen zen. Telefonoa moztutakoan seme alabei esaten omen zien: "ezetz joan zuek ni bezala zuzenen Donostiko alkatearena?" eta halaxe, Donostiako alkatearekin ere aritzen zen telefonoz, hango udaletxeko ate guztiak irekiak izaten zituen, zuzenean alkatearen bulegoraino.

Beti esperimentatzen...

Beti burua martxan izaten zuen, beti gauza berriak probatzen eta esperimentatzen... ongi gogoan dauka Jose Manuel ilobak.



Urte batean, Azpikoetxeko soroan patata horituxea zela, ilobari deitu zion Jose Ramonek. Soroaren erdian landare handiago eta berdeago bat zegoen nonbait eta hari begia joa zion osabak. "Ikustealdek landare ear hoi? atea behar diau! bien artean atera omen zuten eta 13 ale eder zituen. "Erdik nik hartuko zetit ta beste erdik hik, hurrengo urten ereiteko". Halaxe egin zuten.

Beste behin, karea gauza askotarako ona izaki, 1964an egindako eta hurrengo urtean inauguratutako belar siloak zuzituko erabilitakoaren sobekin zer egin pentsatuz ari omen zen. Azpikoetxe ondoko kainua zizalekua zen eta hara botatzea okurritu zizak indartuko zituelakoan... baina gaizki atera...

Barita, burdina, kobrea, pirita, plomua...

Aita zenaren eskuko erlojua eta iparrorrazta erakutsi dizkigu Josefinak, altxor moduan jasoak dauzka etxean. Haiek hartu



Jose Ramon bere emazte Candidarekin 1967an.

eta erreka, uraren kolorea edo harrirei begiratzuz bere gisara minen bila ibiltzen zen mendian. Tresna batzuk izaten zituen eta berezia zen harri edo mineralen bat topatzen bazuen tresna horien bidez ongi igurtzi eta ateratzen zuen distiraren arabera igartzzen zion baliokoa zen edo ez.

Donostiako garai hartako alkatea minetako ingeniaria zen eta harengana joaten zen txamarraren poltsan mineralak hartuta. Urteak eta urteak eman zituen minak ustiatzen eta bi mina saldu zituen 1962 inguruan. Geroztik beste bi sozio izan zituen, Gregorio Intza eta Manolo Gutierrez. Bi sozio hauek kanpoan izaten ziren eta martxa guztia Jose Ramonek eramaten zuen. Langile asko aritzen ziren beraiekin lanean, Jose Manuel iloba, esaterako. Bestelako mina gehiago ere bazeudenez Leitza eta Goizueta inguruan, asturiar, galiziar eta andaluziar dezent aritzen ziren hemen lanean.

Santa Barbara eguna, mine-roen eguna, ongi gogoan daukate Josefina, Miguel eta Jose Manuelek. "Lobidin ematen zituzien bazkarie mineroai. Tragoatzuk itten zittuen ta geo Patxi-kunea joaten zien. Minatako bonba ta etxafuegoak botatzen hasten zien, "goma 2" kartutxo marronak, metxa batzuketan ta ze hotsak!"

Minak saldutakoan...

Lobidik goiko pisuan zuen komedorea eta han ordaintzen zien hilero langileei. Mina saldutako egunean gizon mordoa etorri zen Lobidira eta han aritu ziren paperak sinatzen. Denek alde egin zutenean Treku zenak esan zien seme alabei: "oangoan badeu dirue". Gaezan lotara sartu eta goizean leihoa irekitzen hasi zirenean diamante moduko zerbaitekin leihoreen beira txukun txukun moztua zegoela ikusi zuten, baina barruko leihatilak itxiak zeudenez ezin izan zuten barru-

ra sartu... Jose Ramonen hitzetan, "sartu nahien ibili dena etzen errutikoa".

Trekun bidea

Inguruko baserritarrekin oso ongi moldatzen zen Treku zena, hil ondorean ere askok izan dute ahotan.

Kandido Tolatxenekoak behin Okabio aldera begira jarrita esan omen zion Josefinari: "horko bide hori ezautuko dozo,

ez? Trekun bidea da". Geroztik ongi begiratu du Josefina mapetan eta halaxe ageri da, "Trekun bidea", Okabiotik Guratzerako bidean. Aita zenak egina zen, minen aurretik basotik egurra ateratzen lanean aritua zen eta horretarako egina.

Azpirotzen lanean

Han lanean aritu eta kobratuta Gorrititik etxera zetorrela norbait atera omen zi-

TRECU, hombre polifacético, lleva descubiertas diez minas
En sus correrías por el monte ha encontrado espato-fluor, bienda, harita, hierro, cobre y pirita



«Una muestra de espato-fluor, descubierta por Trecu en sus correrías por el monte. Este mineral es muy abundante en la zona de San Sebastián y es muy valioso para la industria del vidrio y del cemento».

«El hombre polifacético, Treco, ha descubierto diez minas en sus correrías por el monte. Entre ellas: espato-fluor, bienda, harita, hierro, cobre y pirita. Estas minas son muy valiosas para la industria del vidrio y del cemento».



«Trecu en una de sus correrías por el monte».

«Trecu ha descubierto diez minas en sus correrías por el monte. Entre ellas: espato-fluor, bienda, harita, hierro, cobre y pirita. Estas minas son muy valiosas para la industria del vidrio y del cemento».



«Una muestra de bienda, descubierta por Trecu en sus correrías por el monte».

«Trecu ha descubierto diez minas en sus correrías por el monte. Entre ellas: espato-fluor, bienda, harita, hierro, cobre y pirita. Estas minas son muy valiosas para la industria del vidrio y del cemento».

«Trecu ha descubierto diez minas en sus correrías por el monte. Entre ellas: espato-fluor, bienda, harita, hierro, cobre y pirita. Estas minas son muy valiosas para la industria del vidrio y del cemento».



«Una muestra de harita, descubierta por Trecu en sus correrías por el monte».

«Trecu ha descubierto diez minas en sus correrías por el monte. Entre ellas: espato-fluor, bienda, harita, hierro, cobre y pirita. Estas minas son muy valiosas para la industria del vidrio y del cemento».

«Trecu ha descubierto diez minas en sus correrías por el monte. Entre ellas: espato-fluor, bienda, harita, hierro, cobre y pirita. Estas minas son muy valiosas para la industria del vidrio y del cemento».



«Una muestra de hierro, descubierta por Trecu en sus correrías por el monte».

«Trecu ha descubierto diez minas en sus correrías por el monte. Entre ellas: espato-fluor, bienda, harita, hierro, cobre y pirita. Estas minas son muy valiosas para la industria del vidrio y del cemento».

PAMPLONA 63 (II)
PRONTO EMPEZARA LA PAVIMENTACION DE LOS CIRCUITOS DE LEZKAIRU Y ZONA UNIVERSITARIA

El costo total de los colectores norte y sur será de 1.500 millones de pesetas.



«Una muestra de la obra de pavimentación de los circuitos de Lezkairu y zona universitaria».

«El Ayuntamiento de Pamplona ha acordado comenzar pronto la pavimentación de los circuitos de Lezkairu y zona universitaria. El costo total de los colectores norte y sur será de 1.500 millones de pesetas».

«Una muestra de la obra de pavimentación de los circuitos de Lezkairu y zona universitaria».



Hauk dira erabiltzen zituen tresnetako batzuk, Lobidin dauzkate txukun aski jarriak.

tzaion lapurzubín, Gorriti eta Areso arteko bide erdian, Matxain baino goraxeago. "Nik lanen irazi ta besteatek kendu? ez hoixe!" ta laisterrari eman eta zitzu bizian etorri omen zen herriraino. Ez zuten harrapatu...

Gorritiko festetara joan nahian egoten zen alabari zirikan hasten omen zitzaion hamabostaldia baino lehenago, "jitoak etorri omen die Matxainea, sekuleko pille omen dau", ea alaba beldurtu eta festara joan gabe geratzen ote zen...

Zurgin aparta

Aresoko etxe askotan egongo dira berak egindako egur lanak. Arte izugarria zuen egurra lantzeko, garai hartan beste inork ez bezalakoa. Kutxak, altzariak, edozer egiteko gai zen, ikusgarriak dira egiten zituen irudi eta marrazkiak.

Gaztain egurra izugarri maite zuen eta gogoan dauka Jose Manuelek Merun gaztaineri bat erosi, bota, egurrak goitik behera behorraz ekarri eta beste iloba baten kamioian nola ekarri zituzten. Gaztain

egur haiekin egin zituen Lobidi eta Seme-roko sarrerako ateak.

Herriko hildako askori ere berak egiten zizkien hilkutxak, arreba gazteena erabiltzen omen zuen neurritarako... Aresoko Elizak erdiz erdi duen *komulgatorio* edo Jaunartzekoa ere berak egin zuen.

Behin Donostian...

Lobidiko ganbaran aritzen zen egurra lantzen, eskuzko tresnekin. Donostiara joaten zen askotan tresnak erostera, Aresoarra

autobusean Tolosara joan, han trena hartu eta Donostiara. Alaba han ikasten ari zenean noiznahi azaltzen zitzaion bisitan eta beti galdetzen omen zion: "ba al dezu diruik? diruik bai ibiltzeko nahikoa izandu naiz ni ta tori! baño ikasi, eh! dirue ezte la nolanahi gatatzeko izaten!".

Josefinaren hitzetan "beti bazun zerbate iteko Donostin! tresnan bat erosi... halako kalean esan ditea, kale hoi non ote da... ta hanxe ibiltzen zen. Gañekoak baño espabilatugoa zen, Madrileño de joana zen, azkeneko mina saldu zunen patu nahi etziela ta pleitutan de ibilie zen".

Behin Donostiara joan eta alaba eta biak kalean barrena zihozela aitak alabari: "halako kalea non da? eta alabak, "eztakit ba...". "Beti hemen zeate ta

kalen izenik de eztaizue?" esan omen zion aitak. Orduan atzera begiratu eta gizon bati galdetu omen zion kale hura non zen. Gizonak eskuan zuen aterkia goratu eta erakutsiz "siga por la derecha, luego a la izquierda..." eta nahi gabe pasaeran zen emakumeari danba eman aterkiarekin... Eta zer da eta emakumea oihuka hasi! Treku zenak orduan alabari "neskatoo, goazen hemendik, hemen ezta ta gauzonik!", eta martxa!

Tolosatik bueltan ahuleriak jo...

Behin Tolosara joan omen zen oinez zerbait erostera. Bueltan zetorrela ahuleriak jo eta pauso bat emateko ere gai ez zela geratu omen zen. Zorionez mizpirez betetako zuhaitz bat ikusi eta harrapatutako mizpira guztiak jan omen zituen eta



Azpikoetxean dagoen kutxa honi hankak eta goiko aldean zizkion esku bakarrez, tronbosiak jo eta gero.

harrri esker eman buelta. Geroztik beti esaten zuen landare eta zuhaitzak sartzeko, eta berak ere landaketarako afizio izugarria zuen. Zuhaitzak txertatzen ere abila zen eta mota askotako sagarrak, anpolaiak, mizpirak, gerezi beltzak... txertatu zituen.

Argirik ez herrian...

Eskuz aritzen zen egurra lantzen eta betiko pena izaten zuen, argi indarririk ez zela herrian. Leitzan eta beste leku batzuetan ikusiak zituen argi indarrez funtzionatzen zuten tresna eta makinak eta berak ezin erabili... sekulako pena zuen! Esaten zuen herri batek ezin zuela aurrera egin argirik gabe. Gai horrek gora behera asko eragin zituen urteak pasa ziren herrian argia sartzeko (1973ko pesta bezperan sartu zuten) eta azkenean Jose Ramon Treku hori ezagutu gabe hil zen.

67 urte inguru zituela alabarekin Lobidiko pasilloan metroarekin lanean ari zela ongiezik sentitu eta gaixotu egin zen.

Tronbosia izan zuen eta hitz egiteko gaitasuna galtzeaz gainera gorputzeko eskubiko alderdia gelditu egin zitzaion. Larrañeta garai hartako mediku ezaguna etorri zen etxera eta medikuaren tresnak erabili ahal izateko argi indarririk ez zenez, herriko etxe guztietara abisua pasa zuten denek argi guztiak itzaltzeko eskatuz, ea horrela Lobidin medikuaren tresna erabiltzeko adina indar iristen zen.

Horren ondoren hitz egiteko gaitasun piska bat bereganatu zuen baina gorputzeko mugimendua askorik ez... Hala ere esku txarrena zuen ezkerrez lanean jarraitu zuen buru belarri.

Handik hiru urtera beste tronbosi bat izan zuen eta 1971ko maiatzaren 21ean hil zen 70 urterekin. Josefinak 21 urte zituen orduan, gaztea zen eta beharbada momentuan ohartu ez bazen ere, orduan gauza gehiago galdetu ez izana eta arreta gehiago jarri ez izanaren pena aipatu digu... baina begiek dir-dir egiten diote aitaz hitz egitean, garai hartako bizipen eta sentimenduak bizi bizirik ditu barruan betiko.

Musikaren magalean hazitakoak



Jaione Olazabalek eta Jon Gurrutzagak maite dute musika, eta bereziki, euskal kantagintza. Musikarekiko duten zaletasuna sumatzen da kantuan ikusten ditugunean, herriko zenbait ospakizunetan akordeoia eta gitarra hartuta parte hartzen dutenean, edota eskolako ikasleei abestiak erakustean. Musika giro horretan hazi dira haien 4 seme-alabak.

Familia musikazalea zarete, eta afizio horri tiraka disko bat grabatu berri duzue, seiak elkarrekin kantuan. Nola sortu zen diskoa grabatzeko ideia? Ezkondu ginenean disko xume bat grabatu genuen gonbidatuei oparitzeko eta musikak oroitzapen, emozio eta sentimenduak bildu eta gordetzeko ahalmena duenez, diskoa entzutean garai hartako bizipenak etortzen zaizkigu burura... altxor bat bezala da guretzat disko hura, nahiz eta kalitatez ez beste mundukoa izan. Gauza bera egin nahi izan dugu orain, 15 urte hauetan haurrak izan eta hezterakoan euskal abestiak oso presente egon dira gure egunerokoan eta baterako eta besterako sortu eta prestatu ditugun abestiak bildu nahi izan ditugu, batez ere gordetzeko eta haurrek ere ume garaiko oroitzapena izateko.

Diozunaren arabera, musika bizipen positiboekin lotzea garrantzitsua da. Zentzu horretan, musika beharrezkoa edo lagungarri dela uste al duzue haurrak hazteko eta hezteko?

Bai, bizipen positiboekin eta bestelakoe-kin ere, izan ere musikak barrenak ukitzen dizkigu askotan eta barrua ukitzen digun guztia geratzen da gogoan. Haurren heziketan ezinbesteko pieza izan beharko luke musikak, ikusi besterik ez dago Europako lurralde askotan hemengo aldean ematen zaion garrantzia. Gure ustez oinarritzko gaitasun guztiak garatzen laguntzen du, garuna eta adimena aktibatu egiten ditu eta emozioak, irudimena eta sentimenduak pizten ditu; haurren garapen kognitiboan oso eragin positiboa du.

4 neska-mutiko dituzue: Aratz (14 urte), Intzara (12 urte), Arhane (9 urte) eta Nahikari (6 urte). Nola bizi dute haiek musika, eta zein estilo gustatzen zaie?

Txikitatik musikaz inguratuta bizi izan dira eta kantari ez bada dantzan eta bes-tela instrumenturen bat jotzen, askotan aritzen dira zerbaitetan. Boladak izaten dituzte, batzuetan gutxiago eta bestee-

tan isildu gabe... hiru zaharrenak musika eskolan ari dira eta laurak joaten dira dantza ikastera. Aratzek bateria jotzen du, Intzarak trikitixa eta Arhane gitarra. Eskolako txirula eta etxean ditugun teklatura eta panderoak ere askotan jotzen dituzte. Txikitatik gehien bat euskal musika izan dugu presentean, agian guk ere hori sustatu diegulako, baina adinean gora doazen heinean denetik...

Diskora etorri, zenbat abesti bildu dituzue?

Hamaika abesti daude. Gehienak herrikoiak edo beste artistenak dira, baina tartean bi gureak: bat haurrek eta Jonek niri, haurren amari, sortua; eta bestea, nik (Jaionek) anai zenari sortua.

Guretzat urte hauetan esanguratsuak izan diren mezu eta doinuak sartu ditugu. Disko honetan maitasunari, falta direnei, aiton amonei, gazte eta haurrei, gurasoei, Nafarroari eta Euskal Herriari abesten diegu besteak beste. Mundua eta ingurua dagoen bezala egonda bake kantu bat ere sartu dugu, urte hauetan askotan abestu ditugun haur kantetako bat ere bai eta guretzat Eguberri garaia garrantzitsua izanik gabon kanta bat ere bai.

Etxean bertan grabatu duzue, estudio batera joan gabe.

Gure asmoa grabaketa modu naturalean egitea izan da, pista ezberdinetan grabatu beharrean denek batera abestuz, zuzeneko bat izango balitz bezala. Modu honetan egitean akats eta desajusteak badaude, baina bere xarma ere baduela uste dugu. Teknikoa gure etxera etorri eta estudioa bertan muntatu zuen, etxean haurrak ere lasaiago, aspertutakoan geldituz eta beste erritmo batean. Eta horrek asko lagundu digu, gutzietan.

Diskoa erosteko aukerarik izanen al da? Oraindik ez dugu pentsatu salmenta gurekin jarriko dugun, dena den nahi duenak gurekin harremanetan jar liteke.

Herrian, sustraiak errotuz

Oarsoaldetik Aresora, sentipenek bideratutako aldaketa.

Udaberriko arratsalde hartan, Ainara Omaetxebarria eta Edu Remirez zain genituen, beraiek esan bezala, ametsik onenetan ere imajinatuko ez luketen paraje zoragarri batean.

Esku zabalik hartu gintuen bikoteak beraien etxean, Sastizarren. Ondoan ziztuzten Beltza eta Eduren ama. Zabalik gu ere, belarriak eta begiak erne, kontatzeko zuten guztia entzuteko.

Etxeko atea zabaldu eta gustu handiz apaindutako mahai luze-luze bat genuen aurrean. Mahai gainean kandela bat dir-dirka, gu bideratu nahian, eta kandelaz gain pasta batzuk eta beraiek egindako infusioa, han ez zen edateko nahiz jatekorik falta. Kutixi haiei muzin egin gabe ekin genion elkarrizketari. Solasaldi oparoa benetan, gure hizkuntza bezain oparoa, hor aritu ginen bakoitza bere euskalkian. Ainararen hizkeran bizirik dirau oraindik Markinar doinuak, eta horrela aritu zen elkarrizketa osoan, bizkaieraz.

2016. urteko abuztuaren hasieran utzi zuten beraien Erreterriako atikotxoa, Ainara, Edu eta euren hiru seme-alabek. Maletak egin eta hiri kozkor batetik herri txiki baterako bidaiari ekin zioten. Eduk esan bezala "abentura bat zen... aldaketa potente bat izan zen. Guk ez genuen ezagutzen ez inguru hau, ezta bertako inor ere. Etxebizitza, ikastola, umeen lagunak... bizimodu oso baten aldaketa, azken finean". Hala ere, behin eta berriz esan zuten zorte ona izan zutela beraien umeekin. Aldaketa sakona izan arren, oso erreza izan baitzen. "Gu ongi geundela ikusten zuten eta beraiek aurrera joateko prest zeuden. Gurasoak guztiz prest daudenean haurrak moldatu egiten dira era zoragarri batean, harritzekoa da. Bagenekien elkarrekin eta elkarri laguntzeko prest geundela eta aldaketa horretan asko ikasiko genuela".

Hona etorri baino pare bat urte lehenago hasi ziren aldaketa baten beharra sumatzen. Bizitzaren gorabeherak tarteko, beraien barruan gauza asko mugitzen,



Ainara eta Edu, bikote polifazetikoa.



Sastizarko familia.

planteamendu ezberdinak egiten, bizitza ikusteko modua aldatzen. Zerk edo nork bideratutako aldaketa izan zen galdetuta, Ainarak argi du astinduak bideratutako aldaketa bat izan dela. "Momentu bat iritsi zen gure bizitzan, non sentitu baikenuen erabateko aldaketa bat egin behar genuela. Hilabete gutxi batzuk izan ziren. Ordura arteko bizimodua gelditu eta egoera behartu genuen, nire betiko lana utzi nuen. Oso argi zegoen zein zen egin behar genuen aldaketa. Indar sendo bat etorri zen". Edu ere bat dator Ainarak dioenarekin, "barruan bageneukan zeozer. Betidanik izan dugu naturara hurbiltzeko gogoia eta baserri batean bizi izatea amets moduan genuen". Momentuko egoerak horrela bideratuta, aldaketa horri bidea irekitzeko aukera martxan jarri zuten.

Ainarak elkarrizketan zehar adierazi duen bezala, sentipenekin asko jokatzeko dute. Orduan ere horrela izan zen, egun batean etxearen inguruko irudi argi bat

etorri zitzaion Ainarari, bai kanpoko itxuraz baita barrukoaz ere, eta nolakoa izan behar zuen amets egin zuen. Biek argi zuten etxeak zer eskaini behar zien: naturan egon behar zuen, etxe ireki bat, 4 ate modukoekin, baserri bat zen. Familia beharrak aseko zituena, helduenak zein haurrenak, familiarra, indartsua, proiektu bat. "Baina, posible al da hori guztia? Zuk ez dakizu gero hori nola bideratuko den" zalantzak sortzen zitzaizkion Ainarari. "Bilatzen hasi eta bat-batean hau agertu zen, kasualitatea, izan ere, Erreterian bizi ginenaz, Erreterian inguruan genbiltzan begira". Mugak hautsi, begiak zabaldu, askatu momentuan lotuta mantendu nahi zuten hura eta hurrengo egunetan Sastizarren iragarkia ikusi zuen Eduk. Ez zekiten Areso non zegoen ere, sekula entzun gabea zuten. Etxea ikustera etorri zirenean konturatu ziren haien ametsetako baserria zela. Baserria kristalariarekin, Eduk nahi bezala.

Sastizarrera etortzearen zergatia, kasualitatea izan zitekeen arren, denborak

aurrera egin ahala ohartu dira, kasualitate gutxi duela kasualitate horrek "hemen izan behar zuela, zeozertarako zela sentitu genuen eta segidan konturatu ginen, lehen odoleko familia ulerzen genuen hori, urteak pasa eta gero ikasi dugu beste zerbait badela. Familia zabalago bat".

Pausoz pauso eta proiektuz proiektu dabilta Ainar eta Edu. Ikusi besterik ez dago urteekin zabaltzen joan den proiektu bat izan dela.

Hasieran, landetxe bat izateko pentsamenduarekin ekin zioten bideari, Ainarak dioen bezala "dena esfortzuagaz eta dena bizitzak esaten duen moduan", baina denborak eta eguneroko bizipenek erakutsi die beste egin behar batzuk ere badituztela.

Bihotzetik sentitzen duten horri atea ireki eta bidean topo egin duten jendearekin familia berri bat osatu dute. Elkarrekin ikasten, gozatzen eta uneoro zerbait berria eraikitzen. Markinarrak esan bezala,

“gauza xumeak, baina maitasunetik eginak”. Natureder proiektua tarteko.

2020. urtearekin batera iritsi zen pandemia eta segidan konfinamendua. Hura izan zen Natureder proiektua bideratu zuena. Egunerokotasuneko ezintasun guztiak mahai gainean ipini eta hor hasi ziren pixkana jolasten Sastizar eta Amalurreko familiak. Hasieran zaila izan zela diote, dena itxita, landetxera bezelerik ezin joan, hori gutxi ez eta Edu lanik gabe geratu zen. Hasierako kolpe horretatik buelta eman eta ulertu zuten hori ere seinale bat zela, beraien beldurra askatu eta egoerak eman zien aukera hori aprobetxatzeko momentua iritsi zela. Eduk naturarekin sentitzen zuen lotura hura nolabait aurrera eraman ahal izateko bide bat ireki zitzaion. “Guri gustatzen zitzaiguna egiteko sekulako aukera izan zen” dio Eduk.

Etxearen barrualdean nahiz kanpoaldean hainbat txukunketa egiten hasi ziren. Beraien ilusioak, proiektuak, elkartzeko eta euren dohainak hortxe azaleratu ziren. Egurra eta harriarekin jolasean, elkarlanean. Ideia mordo bat izan zuten: barbakoa, kobazuloa, jendea etortzen hasten zenerako bazterrak egokitzen. “Erabaki horiek elkarrekin egiten direnean indar gehiago hartzen dute eta horrek guztiak poza eta lasaitasuna ekartzen badu, hor dago dana. Hurrengo ekintzarako ere indarra ematen du.”

Ondoren Amalur etorri zen. Aurkikuntza handia izan zen beraienzat, eskaintzeko asko zuen eta gauza mordo zituzten han ere zain. Apartamentu turistiko bat egiteko asmoz hasi ziren Beltzaren etxean lanean. Momentuak eskatzen zuena disfrutatuz, bertako dekorazioa beraien egin zuten. Hori gutxi ez eta, beheko solairua txukuntze lanetan ari zirela ohartu ziren hura zela tokia beraien dohainez egiten duten guzti horri lekua egiteko, tailer bat sortzeko. Garai hartan, Leitzako Jai-Alai ostaturtik ere deitu zieten berritze lanetan ari zirela, eta bertako dekorazioan ere badute zeresanik artisauek. Orduan konturatu ziren gaitasuna bazegoela eta ez zela landetxea bakarrik. Natureder proiektuak bere ibilbideari hasiera eman zion. Atal ezberdinak dituen mikro-kooperatiba bat da egun, Natureder (landetxea,



Sastizar, ametsak errealitate bihurtzen dituen baserria.



Txokorik berezietakoa. Sastizarko kobazuloa.



Natureder familia.

artisautza, ekitaldiak, jardunaldiak ...) eta oraindik forma hartzen ari dena, gainera.

Artisautzaren atalean, beraien ausardia azaldu dute eta lan ezberdinak egiten dituzte. Egurrezko piezez gain, harriarekin ere lan egiten dute. Lanparak, altzariak, dena naturan inspiratuta, pieza bakoitza bakarra da, bai diseinuaren baita tamainaren aldetik ere. Bistakoa da, denak maitasun handiarekin eginak daudela. Dekoratzeko garaian ere espazio bakoitzak duen bere arima propioa mantentzen saiatzen dira. Horretarako gure ingurunean dauden lehengaez baliatzen dira, besteak beste, eroritako pago, gaztainondo, haritzen adarrak hartu eta beraien eskuekin lantzen di-

tuzte artelana izateraino. Material horren aukeraketa nola egiten duten galdetuta, haxe erantzun zigun Eduk: "Hasieran gauza bat dugu buruan, bertara joan, ordea, eta gerta liteke, erabat ezberdina den gauza batekin etxera itzultzea. Espazioekin ere gauza bera gertatzen zaigu, gela batean sartu eta momentu horretan toki horrek ematen digun sentitze horretatik gauzatzen dugu, egingo dugun hori. Pieza bakoitzak bere izena eta esanahia du". Izen eta guzti, bizi berri bat ematen diote inork nahi ez dituen adar horiei. Etxeko egiten dituzte horiek ere. Beraien landetxeko bezeroak bezala. Etxeko giroa eskainiz, ilusio, lasaitasun eta gozamenetik.

Sortzen dituzten espazio ezberdin horiek, bertaratzen direnei familia giroa eskaintzeko helburuarekin.

Sastizar etxeak, familia, lagunarte, turismora bideratutako landetxe bat izatetik beste salto bat egin du. Erretiroak egiten dituzte bertan. "Egun batean neska bat bertaratu zen kasualitatez, Bizkaian zegoen etxe batera joateko asmoa zuen, nolatan ez daki berak ere, baina hemen geratu zen. Lekua ikusi, bizitu eta bertako energiarekin konektatu ostean, bertan erretiro bat antolatu nahi zuela esan zigun". Bat-batean, 40 pertsonako erretiro baten aurrean zeuden. Hori egin ahal izateko gelak egokitu behar izan zituzten. Honek



Bizia duen guztiak du izana eta izana duen guztiak izena.

guztiak beste bide bat ireki die Sastizarko familiari, hasiera batean zuten landetxearen kontzeptua pixkanaka urruntzen doa eta familia handitzen. Denen elkarlanetik, heldu eta haurrentzako erretiroak antolatzeko hasi dira. Familia bakoitzarekin erretiro ezberdinak egiten dira, familia horiei elkar bizitzeko ikuspegi berri bat emanaz.

Bistakoa da buruan dituzten proiektu horiek guztiak toperik ez dutela. Gaur egun hartu duen formak ez du zerikusirik hasieran sortu zen hartatik. Hamaitetako garaian mahai luze horren bueltan eseri eta sortzen zaizkien ideia mordo horiek, bertan jarri eta ezinezkoak diruditenak ere, azkenean posible bihurtzen dituzte. Konpromisoa hartua dute nonbait, buruan duten hori zerbait materiala bihurtzeko. "Sekula ez da bukatu proiektu berriak gauzatzearen nahi hori. Etortzen zaizkigun aukera guztiak aurrera eramaten saiatuko gara" dio Ainarak. Hortik, azken hilabeteetako beste lan berri bat; sendabelar eta landareekin jolasean ari dira, lagun batek hauen inguruan duen esperientziaren baliatuz, noiz eta nola jaso, nola lehortu... infusioak, xaboiak egiten... beti ere talde lanean aritzeak ematen dion indar horrekin.

Tokiak asko laguntzen dietela diote, Ama-lurrak babesten ditu nonbait. Sastizar bakoitzarentzat sentitzen duena da eta denentzat dago tokia, hori da erakutsi nahi izan zigutena bertako egonaldian Ainarak eta Eduk. Gure eskerrik beroenak eta gure indarrik eta energiarik hobereenak zuentzat familia, eta horrela jarrai dezazuela urteetan, maitasunezko energia horrekin!



Xaboi eta krema naturalak, eskuz eta maitasun handiarekin eginak.



Aresoko Azeriaren bidea

Nazabal eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek burututako proiektua duzue ondorengoia. Euskara, gaztelera eta ingelesa uzartuz "Azeriaren bidea" izeneko eskuorria sortu dute eta polita bezain interesgarria iruditu zaigu. QR kodeez osatutako eskuorria da eta bertan herrian interes berezia duten txoko ezberdinen inguruko informazioa topatu daiteke. Hemen duzue eskuorria, klikatu QR kodeak, ikusi eta entzun.

LHko bi tutoreek, Itziar Olaizola eta Idoia del Cortek, aipatu digutenez, nolabait herria lantzea izan zen beraien hasierako helburua. Proiektu hau ikasleentzat zerbait esanguratsua eta parte-hartzailea izatea nahi zuten. Beraien hitzetan, "garrantzitsua iruditzen zitzaigun ikasleek herriari buruz pixka bat gehiago

ikasteaz gain, herriarentzat zerbait baliagarria egitea, ikasleek egindako lana herrian ezagutzeko eta baita turistei Areso ezagutarazteko ere. Bestalde, proiektu honek lanketa handia eskatzen du, eta gaitasun asko lantzen dira. Hori ere oso interesgarria iruditu zitzaigun".

2022-2023 ikasturtean LHn 14 ikasle zituzten eskolan. Egokia iruditu zitzaizkien kopuru aldetik biko taldeak egitea eta talde horiek orekatuak izatea adinari dago-kionez. Zaharrenak gazteenekin jarri zituzten, eta pixka bat denen parte-hartzea bermatzeko, astero beraien eginbeharrak txandatzeko zituzten (idazkari, koordinatzaile, materiala biltzeko ardura eta bozeramaile lanak, alegia). Pixkanaka proiektua osatuz joan ziren eta amaiera emateko herriko udaletxean izan ziren egindako lana aurkezten.

Adin ezberdinetako haurrek elkarrekin lan egiteak izan ditzakeen gabezia edo alderdi positiboak buruz galdetuta ondorengoia diote Idoia eta Itziarrek: "Ez genuke esango adin ezberdinetako ikasleek elkarrekin lan egiteko garaian gabeziarik dagoenik. Bat esatekotan, zaharrenak lan guztia bere gain hartzea litzateke, baina antolaketa on batekin pareka daitezkeen kontua da. Txikiei handiek egiten dituzten gauzak gustatzen zaizkie eta beraiengandik ikasten dute, eta zaharrenak txikiei irakasten dien bitartean, beraien dakiten hori sendotzen eta baieztatzen dute, beraz, denak onurak direla uste dugu".

Aurrerantzean dituzten asmoei buruz galdetuta, erronka hauek dituzten onurak ikusita, ziur daude berriz ere estilo honetako proiektuetan murgilduko direla.

ARESO

**KAIXO LAGUN!
ARESOKO UMEAK GARA! GURE
HERRIA ERAKUTSI NAHI
DIZUEGU! ANIMATZEN AL
ZARETE AZERIAREN BIDEA
GUREKIN EGITERA?**

HEMEN GURE HERRIAREN INFORMAZIOA

Azeriaren bidea

Areso Euskal Herriko erdialdean dago, Nafarroako ipar mendebaldean. Bere alboan, Berastegi, Leitza, Gorriti eta Lekunberri herriak daude. Bertatik, Astomela erreka pasatzen da eta Ulizar, Guratz eta Urkita mendietaz inguratuta dago.

Areso, herri txiki, polita eta berdea da eta 270 biztanle ditu. Klima euritsua eta hezea du. Negua euritsua eta hotza da eta uda beroa eta epela. Areson, euskaraz hitz egiten da eta Aresora etortzen bazara, eraikin hauek topa ditzazkezu: etxeak, pisu batzuk, Peune, labaderoa, eliza, ermita, udaletxea eta eskola. Gainera, plaza bat eta bi ur-salto daude.



Proiektua burutu zuten ikasleak irakasleekin eta udal langileekin udaletxean egindako aurkezpenean.

The map interface features a central satellite view of a village with several numbered points of interest (1-7). Surrounding the map are various interactive elements:

- QR Codes:** Multiple QR codes are placed around the map, each linked to specific information or audio content.
- Language Selection:** QR codes are labeled with 'Eusk', 'Gazte', and 'English', indicating that the content is available in multiple languages.
- Audio Playback:** Speaker icons are placed near the QR codes, suggesting that the content includes audio recordings.
- Landmarks:** The map labels include 'Eliza', 'Parroquia Católica La Asunción', 'Peune etxea', 'Nazabal eskola', 'Herriko plaza', 'Udaletxea', and 'Ayuntamiento de Areso'.

Garai bateko Areso

Ohiko moduan, oraingo aldizkarian ere atzera begira jarri gara gure aurreko belaunaldiak nola bizi ziren erakusteko. Baita orduko Areso nolakoa zen ikusteko eta urteen poderioz ingurua nola aldatu den jabetzeko ere: paisaiari eta jendeari begiratu besterik ez dago aldaketaz ohartzeko. Erreparatu erretratoei eta ea orduko aresoarrak ezagutzen dituzuen. Gozatu garai bateko herriko irudiez, eta eskerrik asko altxor hauek jasoak dituzten familiei eta aldizkarirako utzi dizkigutenei.



Areso Eberreko Borda aldetik ikusita.



Aresoko plaza.



Gora San Fermin!



Lan egin ondoren otordurako prest.



Gregorio, Fraxku, Luis eta Josexo txerria hiltzen.



Miguel Angel maisuarekin Peñara joan zirenekoa.



Mutila asto gainean atzean Zubidi duela.



Patikunea ataria, Carmen, Maria eta Mari Miel besteak beste.

ARanOtik AResOra, jubilotekara bidean

Aranotik Aresora hiru letrako aldean dago. Lan honetan hasi nintzenean, Jubilotekan alegia, pensatu nuen neuzkan 4 herrien artean nirearekin antzekotasun gehiena izango zuena hauxe izango zela! Eta zein gustura etortzen naizen, etxekoa bezala tratatzen nauen herrira!

Ez naiz besteetan gaizki aurkitzen, ezta gutxiagorik ere! Denetan ongi zaintzen naute... Nortasun desberdina dutela esango nuke Goizuetak, Leitzak, Aranok eta Aresok. Baina herri txikiak konpartitzen duten hainbeste ezaugarri ikusten dizkiot Aresori nirearekin... Esan behar dut, autobian haruntza eta honuntza pasatzean urrutitik begiratzen nion herrira zela lehen, baina orain bertatik ezagutzeko aukera izan dudanez, herria zoragarria dela esan dezakedala.

Ez naiz Aresoko herria goraiatzeko ariko hemen! Jubilotekako nire "amonak eta aitona" nahi nituzke orri hauetara ekarri. Nire izeba-osabak izan daitezke adinez, noski, baina aitona-amonak badeute niretzat halako izaera jakintsu eta xamur bat... Horregatik, Aresoko nire familia, jubilotekako familia, zertan aritzen den kontatzea gustu handiz egingo dudana zerbait da Panpanoziriren zenbaki honetarako.

10:00etako kanpai hotsak ari direla igotzen dut Udaletxeko aldapa, eta jada hor egoten dira, eguraldi ona dene-

tan, gehientsuenak, egun onak emateko zain! "Txintxoa" esaten dit batek, eta sekulako irrifarrea ateratzen dit hori esaten didanean! Beti umoretsu ikusten nautela nabari da, eta... nola egongo naiz bestela lagun arte horretan? Behin esan zidaten, proposatutako lantxo bat egiten asmatu ez zuten batean, ongi egitean "ongi" eta gaizki egitean ere "ongi dagoela" esaten niela eta... munduko "andereñorik" onena nintzela! Eta nik, hain garrantzitsua ikusten dut, lagun artean zerbait desberdina eginez elkartzeko hori... gutxienekoa dela lantxo bat zuzen ala oker egiten den. Desberdina den "zerbait" horretan buruari eragitea da bilatzen duguna, eta hori soberan egiten dute denek!

Hasieran bi elkartzeko ziren, eta pandemiaren geroztik, batek etxetik ere jarraitzen zuten jubilotekako lantxo hauek egiten. Orain, familia handitu zait eta ni are gozoago sentitzen naiz! Lau dira asteazken goizetan Udaletxeko goiko gelan nirekin biltzen direnak, eta burua argi edukitzen laguntzeko ariketak edo jolasak egiten ditugu, baina ez hori bakarrik, izan ere, gorputza arintzeko ariketa txiki batzuk ere egiten ditugu. Baina batez ere, elkartu eta goiz entretenigarri bat proposatzen diet eta uste dut, hauxe dela talde honen gehienbat estimatzen duena. Sastinen kafesnea hartu

eta nork ez gaitu ikusi jolasean eguerdira arte hango mahai batean?

Esandakoaz gain, ez nuke eskularen tarte ahaztu nahi! Bi aukiri ipurdia konpontzen aritu ginenekoa dut gogoan! Egun haietan artisaun itxuran aritu ginen eta ez zitzaigun lan zatarrak ateratzen gainera! Esango dizuet, aukeri konponketa tailerra montatzekoan egon ginela egindako lanaz harro gelditu ginenez...!!! Ez genuen parre gutxi egin...

Giro ederrean biltzen gara egia esateko. Askotan esaten didate, haiei erakustera joaten naizela, eta nik, ni naizela haiekin ikasi egiten dudana, besterik ezin dut esan behin eta berriz...

Eta gaur ze lan erakutsiko dugun? Baikoitzak margotu duen marrazki edo mandala bat dakarkizuet! Espero dut zuei, niri bezainbeste gustatzea... On egin ba eta zuei, artistei, eskerrik asko zareten bezalakoak izateagatik!

Ainhoa Ansa Zugarramurdi



ANA MARIK eraman gaitu, mundu txiki baina zirraragarri bat ezagutzera. Ez dakigu zer dagoen ate eta leiho horien bestaldean, baina barrura sartzea gonbidatzen gaituzte kolore xamur horiek... Hartziko xenda urdina hartzen badugu, abentura ederra biziko dugu, ziur naiz! Heldu eskutik, eta ezagutuko ditugu bide berriak...

PEIOK eraman gaitu, laino artetik eguzkia agertzen ikustera. Nola agertzen den lainoen artetik, ilunari aurre eginez! Bakarrrik dagoela ematen badu ere, lagun egiten diote Erromako zubiak loreen gainera erortzen den ihintzak... eta gero, ilunabarrean, etxeetako argiak pizten direnean, ilargipeko karakolek gau ona pasatzeko esanez agurtzen dute hurrengo egunera arte.



JOXEPAK eraman gaitu, bestelako bidaia bat egiteko prestatzera! Jaso mailetak furgoneta gainera eta sartuko al gara barruan? Hor barruan dagoenak izaera alaiko gidaria izan behar du, lorez jantzitako eta kolore epelez margotutako bihotza duena. Ni joango nintzateke konpainia horretan edonora... Goazen ba pozik guztiok!

TÉRESAK eraman gaitu, argiaren eta ilunaren arteko dantzara. Eta ilun guztiak badu argia, argi guztiak iluna baduen moduan. Oreka horretan, gauza gogorrei alde bigunak aurkituz, nekeetatik indarra ateraz, biziaren gurpilaz gozatuz, inguruko jendearen babesa bilatuz... lore eder horretatik sortuko dira kimuak...



MAMMA MIA, ANDIAMO IN ITALIA!

**Ane Baraibar
Arratibel**

**PEDAGOGIAN
ETA HAUR
HEZKUNTZAN
GRADUATUA**

Erasmus programarekin Italian urte erdiz egoteko aukera izan zuen Anek.



“Erasmusean joateko zergatiak bilatu ordez, ‘zergatik ez?’ pentsatu nuen”

Duela lau urte, 2019ko irailetik 2020ko otsaila bitarte, Italiara bidaiatu zuen Ane Baraibar Arratibel (Areso, 1996). Pedagogian eta Haur Hezkuntzan graduatua da Ane, eta ikasketak tarteko, Italia iparraldean igaro zuen urte erdia Erasmus beka bati esker. Bertan egindako egonaldian bizitakoak kontatuko dizkigu ondorengo lerroetan.

Pedagogiako ikasketetan Erasmusean joan ez izanaren pena zenuen.

Bai, hala da, orduko hartan ez nintzen joan eta oraingoan ezin nuen aukera pasatzen utzi. Horrela, Haur Hezkuntzako gradua ikasten ari nintzela, Erasmus programan parte hartzeko aukera izan nuen, eta joatea erabaki nuen. Hasieran, ideiak bertigo pixka bat ematen zidan, batez ere beldurrrak eta ezjakintasunak bultzatuta, baina esperientzia hura bizitzea positiboa zela eta probatzea merezi zuela esaten zuten. Beraz, Erasmusean joateko zergatiak bilatu ordez, “zergatik ez?” pentsatu nuen.

Zein izan zen bidaia horren helburua?

Ikasketa aldetik formakuntza gehiago jasotzea zen helburu nagusia, praktikaldi baten bidez eskola nahiz hezkuntza metodologia ezberdinak ezagutzea. Era berean, hizkuntza berri bat ikasteko aukera polita izan zen. Bertako jendearekin harremana izateko ezinbestekoa baitzen italieraz hitz egitea. Pertsonalki berriz, konfort egoeratik atera eta etxetik kanpo esperientzia berri bat bizitzea nuen helburu, kultura berri bat ezagutu eta pertsona bezala hezte.

Zenbat denborako egonaldia izan zen?

Unibertsitatearekin adostu bezala, Italian, urte erdia pasatzea zen helburu. Datak zehazterako orduan denbora asko dela ematen du, nahikoa esperientzia bizitzeko. Behin han zaudenean, ordea, oharkabean pasatzen da denbora, eta iritsi orduko itzultzeko garaia dela ematen du. Gustura gelditu izan nintzen han beste urte erdi batez, gutxienez.

Nolatan aukeratu zenuen Italia?

Nora joan nahi nuen aukeratzeko orduan, Europar Batasuneko herrialde bat izan behar zuela adierazi zidaten unibertsitatean.

Kuriosoena da lehenengo baztertu nuen herrialdea Italia bera izan zela, bi aldiz egon nintzelako aurretik oporretan, eta leku berri bat ezagutu nahi nuelako. Norvegia aldera joatea interesgarria iruditzen zitzaidan, baina aukeran klima hotza zen hilabete asko pasatzeko. Hizkuntzak ere beldurra ematen zidan. Mapa aurrean hartu eta herrialdeak baztertzen hasi nintzen, hala ere aukeratzeko oso zaila zen. Unibertsitatean ere lagundu zidaten, eta langile hura italiarra zen, eta azkenean hura aukeratu nuen: nahiko gertu, hizkuntza erraza, klima antzekoa eta hezkuntza aldetik metodologia interesgarriekin.

Zalantzak zalantza, aukeraketa ona egin nuen. Orain ez dut imajinatzen nola izango zen esperientzia hura beste leku batean edo pertsona ezberdinekin.

Nolakoa izan zen Aresotik atera eta horra iritsi arteko bidaia?

Urduritasunez betetako bidaia izan zen. Aresotik ateratzeko garaian negar egin nuen, baina itzuleran are gehiago.

Amarekin joan nintzen Bilboko aireportura, eta handik Milanera hartu nuen hegazkina. Bertatik tren pare bat hartu nituen Reggio Emiliara iristeko. Gogoan dut oraindik lehen eguna. Hango etxera iristean ez zegoen inor bertan, egun batzuk lehenago iritsi ziren kide batzuk Milaneira joanak baitziren parrandara. Hurrengo goizean, haiek itzultzeko eskolara joana nintzen eta ni eskolatik itzultzean berriz denak lotan aurkitu nituen. Arratsaldera arte ez nituen ezagutu.



Italiako kuadrilla, Polonian.



Pisukideak, Anek dioen bezala, etxeakoak, familia.

Italiarako egonaldi horretan bidelagunen bat izan al zenuen?

Hemendik bakarrik joan nintzen. Etxeak bilatzeko plataforma eta orrialde ezberdinak daude eta bertan zure egoera berdinean dagoen jendearekin jartzen zara harremanetan. Inmobiliaria bateko kontaktua partekatu zuen jendeak, eta beti bezala denboraz justu nabilenez, Aresoko festetan lortu nuen logela azkenean. Nire pisukideen izenak joan aurretik ezagutu

nituen, lehen kontaktu bat izan genuen Whatsapp talde batean. Behin hara iristean, ardi galdua sentitzen zara hasieran, baina beste guztiak ere hala direla konturatzen zara, eta azkenean bata bestearen abaroen zure artaldea osatzen duzu.

Non hartu zenuen ostatu?

Reggio Emilia hirian hartu nuen ostatu, Emilia Romagna eskualdean, Italiako Iparaldean.



Amalfi kostan, asteburu pasa.

170.000 biztanle baino gehiago dituen hiria da, handia dirudien arren herri txiki baten antzerakoa zen guretzat. Herri txikien ohiko lekuekin: herriko plaza, parkea eta taberna. Italiako edozein hiri irudikatzen dugun moduan, kanpotik zaharkitu itxura zuten etxe altuak zeuden, laranja edo hori kolorekoak, eta horietako asko aurreraka bultzatuz irekitzen diren pertsianekin. Hartziko kaleak ziren gehienak eta nola ez, eliz, dorre eta monumentuz beterik gehiengoak. Arte eta kultura aldetik izugarri herrialde aberatsa da.

Gure etxea, hiriaren erdigunetik 15 minutura zegoen oinez, auzo lasai batean. Etxe handia zen, lorategi eta guzti. Bederatzi pertsona bizi ginen bertan: lau euskaldun, bi andaluziar, kanariar bat eta bi italiar. Galiziako bi lagun ere bagenituen taldean, alokairua beste leku batean zuten arren etxeak bezala zirenak. Familia txiki bat osatu genuen denok.

Hiru neska euskaldunek partekatzen genuen gela. Goiko solairuan gelak, komunak eta sukaldea zeuden, eta beheko solairuan egongela eta garbigailuaren gela, besteak beste. Sukaldea zen gure topagunea, bertan orduak ematen ge-

nituen hizketan. Jende gehiago etortzen zenean jaisten ginen egongelara, otorduak egin, pelikulak ikusi, hitz egin, jolas ezberdinak antolatu...

Kalera ateratzen ginenean ere bederatzia batera joan ohi ginen, eta besteekin elkartzean "ya vienen los de la mansión" esaten zuten, kuadrilla handia sortzen baitzen gu agertzean.

Zein zen zuen egunerokoa bertan?

Astean 20 ordu egin behar nituen praktikan, eta eskolarekin astean hiru egunez praktikak egitea adostu nuen. Astelehena eta ostiralak libratzen nituen, horrela plan desberdinak egiteko askatasuna lortuz. Lagunek ere goizez izaten zituzten unibertsitateko klaseak.

Arratsaldeetan, berriz, errutina bihurtu zen hiriaren erdigunera joatea, plazan elkartzea, aperitiboa hartzea edo "la txina" bezala izendatu genuen taberna atarian garagardoak edatea, a ze egonaldiak! Afaldu ondoren egiten genituen, halere, eguneko hizketaldi luzeenak, sukaldean bertan.

Astearte gauetan "Beerpong" txa-



Eskolako saltsan.

pelketa antolatzen zuten hirian, eta hara ere gerturatzen ginen, parrandaxoa egiteko aitzakian.

Astean behin, Italiara hobetzeko akademia batera joaten ginen. Gaztelania baino hobeto ikasi izango nuen italiara, gaztelaraz saiatuta ere nire euskaldun azentoa nabarmena zela esaten zidaten. Barre egiten genuen, ni nire jatorriaz harro... eta azkenerako haiek euskaraz hitz batzuk ikasi zituztenez, oraindik harroago!

Asteburu iristean, hiritik ateratzen saiatzen ginen. Batzuetan inguruko herrietara joaten ginen parrandara, eta beste batzuetan leku berriak ezagutzeko bidaiak antolatzen genituen.



Dolomitak zuriz jantzita.



Veneziako kanaletan.



Pisako dorrean.

Ikastera joan bai, baina bertan bidaiak ere egin zenituen.

Bai, noski! Aukera suertatu orduko tren, autobusa, alokairuko kotxea edo hegazkina hartzeko irrikaz egoten nintzen. Bizi ginen eskualdeko herri eta hiri desberdinak bisitatu genituen, baita beste eskualde batzuk ere. Iparraldean dau-

den gehienak ezagutu genituela esango nuke: Parma, Bologna, Pisa, Florentzia, Errroma, Milan, Venezia, Verona, Lago di Garda ... bisitatutako lekuen zerrenda oso luzea da.

Amalfi kosta, Capri irla eta Pompeya udazkenean bisitatu genituen. Dolomitak berriz neguan, dena txuri-txuri zegoela.

Izanez, etxea, Euskal Herria, gogora ekartzeko zuten lekuak ere baziren han: Arezzo, Cinque Terre (Bortziriak)...

Italiatik kanpo ere ateratzeko aukera izan genuen: Polonia, Suitza, Frantzia...

Leku asko ezagutu genituen egia esan, baina inoiz ez da nahikoa, aukeran beti baitago zer ikusi eta zer ikasi gehiago!



Aresoarrak Cinque Terren. Izena etxekotuz, Bortziriak deitzen zioten.

Bisitan joan zitzaizunik ere izan zen.

Gurasoak azaro hasieran joan ziren bisitan. Abenduko zubian, berriz, anaia, Zuriñe eta Saioa. Azkenik, Naroa, otsailean. Denei nire egunerokoa erakusten saiatu nintzen, hiria eta inguruak, baina baita bestelako leku eta hiriak ere. Izan ere, bisitariak etorri zitzaizkidala aprobetxatuz leku berrietara ere joan ginen, hartara nik ere toki haiek ezagutzeko aprobetxatu nuen. Horrenbeste aresoar izanda, Arezzo herria bisitatu gabe ezin gelditu!

Nolakoak dira Italiarrak? Seguru, bitxikeriaren bat kontatzeko moduan izango zarela.

Orokorrean italiarrak jatorrak dira, izaera irekia eta lagunkoia dute. Batzuk astunegiak ere badira. Agian xuhurrak direla esango nuke, harrotasun puntu batekin. Hala ere, hemen bezala han ere denetik dago.

Ezaugarri bat nabarmentzekotan gidari traketsak direla esanen nuke, gidari moduan traskal hutsak baitira gehienak. Zerbait entzuna genuen, baina ikusi eta bertatik bizitzea harrigarria izan zen. Napolesera bidaia kotxez egin genuen. Eguna argitzerako etxetik atera eta iluntzen



Italiako gastronomia probatzen, Erroman.

ari zela iritsi ginen hostalera, autobidean egon zen istripu baten ondorioz, 5 ordu galdu genituen bidean. Umorez hartu genuen, denbora egiteko txarangaren musika jarri eta dantzan ere ibili ginen erre-pidearen erdian.

Halako batean iritsi ginen Napolesera, baina lasaitasuna ez zen bukatu. Hiriaren erdigunean, bi erreieko bide bat edozein momentutan hirukoa bihurtzen zuten, eta lasai asko kontrako noranzkotik motorrak gurutzatzen zitzaizkigun, kaskorik

gabe eta hurrekin edo erosketa poltsez gainezka. Semaforoak ere gorrian pasatzen zituzten, eta arauak errespetatzen zituenari bozina jo, gainera! Gidari moduan ez dira oso trebeak, edo agian bai, kaos haren erditik osorik ateratzeak ere bazuen eta bere meritua!

Janari kontuetan, zer moduz dabilta Italiarrak?

Pasta da dudarik gabe Italian nagusitzen den janaria, egunero jaten duten zerbait

da. Gazta ere bai, parmigiano reggiano famatua, besteak beste, plater gehienei botatzen diote. Prosciutto urdaiazpikoa, modena ozpina edota izozkiak ere eza-gunak dira, ez da harritzekoa.

Otorduak etxetik kanpo egiten genituenean, hango plater, edari eta produktu tipikoak probatzen saiatzen ginen. Inon ez ziren falta lasaña, pizza edo risottoak kartan. Zaila da plater bakarria aukeratzeari, dena zegoen ona!

Pisukide italiarrek ere egunero jaten zuten pasta, baina gu denetik prestatzen saiatzen ginen, horrenbeste pastak asper-tu ere egiten baitu bat. Erosketak egiterakoan haragia ontzietan saltzen zuten, eta arrain gehienak rebozatuta. Ez genuen harategi ez arrandegi bat ikusi hirian egon ginen denboran, eta hori faltan botatzen nuen. Ez zuen arrazoi falta *etxean bezala ez dela inon jaten* esan zuenak!

Erosketa-saskian ba al da alderik, hemengoarekin konparatuz gero?

Hemengo prezioekin alderatuta Italiako prezioak zertxobait garestiagoak dira: alokairua, janaria, edaria, garraio publikoa... orain garestiago egongo dela pentsatzen dut, lau urte pasa dira eta!

Atzerrira joateko ematen duten Erasmus beka nahikoa izan al zen bertako gastuak ordaintzeko?

Bekak ematen duen dirulaguntza ez da oso handia, nire kasuan alokairua ordaintzeko balio izan zuen. Gero, han egunerokoa dituzun gastuak ordaintzeko ez zaizu iristen bekarekin, janaria, esaterako. Beraz, gainerako gastu guztiak nork bere dirutik ordaindu behar ditu. Hala ere, hara joandakoan dirua gastatuko duzula argi izan behar duzu. Ezagutu, bidaiatu eta gauzak probatzea oinarritzkoa eta beharrezkoa dela esango nuke, izan ere, atzerrian ikastea bizitzan behin biziko duzun esperientzia baita.

Covid-19aren hasiera hartan gogorren kolpatu zuen herrialdeetako bat izan zen Italia.

Otsailaren erdian itzuli nintzen Aresora. Orduan Covid-a bertara iristeko zegoen arren, Italian, Milan ingurua gogor har-



Florentziako katedralean.

tzen hasia zen. Azken egunetan txantxetan aritu ginen lagunaren artean, "ez digute Italiatik ateratzen utziko" eta antzekoak esanez. Itzultzeko ez nuen arazorik izan. Beste maila bateko zailtasunak zan nituen, ordea, hango lagunak agurtzea izan baitzen zailena niretzat.

Euskal Herrira itzultitakoan, otsailaren amaieran, graduko beste praktika batzuk egiten hasi nintzen Leitzako eskolan, eta bi aste itxialdia hasi zen. Txantxetan eta barre artean esaten genuen guztia egi bihurtu zen, bat-batean... a ze zaplatzeko! Itzultzea gogorra izan bazen, etxean sartuta egoteak oraindik itzulera gogorra egin zuen.

Ze balorazio egingo zenuke bertako egonaldiaz?

Esperientzia oso positiboa izan zen. Esan bezala asko ikasten da kanpoan, hone-lako egonaldi batean, bai akademikoki eta, batez ere, pertsonalki. Edonori gomendatuko nioke, aukera izanez gero, horrelako esperientzia bat bizitzea. Hango bizipenak eta egiten dituzun lagunak betirako zurekin gordetzen dituzun altxorak dira.

Geroztik Italiara berriro itzuli ez naizen arren, hango lagunekin harremana mantendu dut eta berriro elkartzeko aukerak izan ditugu han edo hemen. Zer gehiago eska dezaket? *Grazie mille!*

Aresoko hitz kuttuna



Kontxi Caballero:
Apezak oain de jateko garaien mahien

Gure amak askotan esaten zuen esaldi bat da eta apezak berak ere badaki, berrari ere esaten zion. Nire amak zioenez, dirua eskatzerakoan edo zerbait jaterakoan, apezak beti inguruan izaten ziren.



Nerea Azpiroz:
Txindarita

Hitz hori aukeratu dut nire amaz gogorazten didalako, berak horrela askotan deitzen baitit, eta munduan gehien maitate dudana pertsona delako.



Ane Miren Barandain:
Txintxarrie

Animaliekin lotura duen hitz bat delako gustatzen zait eta niri animaliak asko gustatzen zaizkidalako. Gainera, oso hitz jostaria da eta gertuko bezala sentitzen dut.



Jokin Saizar: Txontxongiloa

Hitz hori asko gustatzen zait behin Aresoko eskolatik Tolosara egin baikenuen txangoa, txontxongiloen museora, eta bisita haren oso oroitzapen onak dauzkadalako.



Arantxa Olazabal:
Txorien kanta

Txikiak ginenean esnatu edo kalera atera edo baratzara joandakoan, ixiltasun momentu horietan txorien kantak entzutea izugarritzko poza zelako niretzat, eta oraindik ere gogoratzen naizelako.



Joxe Otermin:
Txalburuk

Hitz horixe gustatzen zait oso berezia dela iruditzen zaidalako eta ez dudalako beste inon entzun.



Lore Alduntzin:
Dindaie

Egiten duen soinuaengatik gustatzen zait eta baita duen esanahiagatik ere, zerua zabaltzea bezala esan nahi baitu.



Joxe Mari Marzol:
Kardelina

Kardelina aukeratu dut txoria bera oso ederra delako eta izena ere txoria bezain fina delako.



Cristina Saizar:
Gorostie

Oso hitz polita iruditzen zait eta zuhaitza ere oso berezia iruditzen zait. Gainera, urte muga oso epoka berezia izaten da niretzat eta bera ere orduan loratzen da.



Miren Onsalo: Altzei

Nere txoko berezia da Altzei ingurua eta mendi belaze ingurua, hortxe baitaude nire oroitzapen guztiak: gurasoak, anai-arrebak, gure jostaldiak... baita aitona uretara nola bidaltzen gintuen ere.



Marisa Aizagirre:
Duintasuna

Hitz hau aukeratu dut oso hitz borobila iruditzen zaidalako, errespetu asko daukana. Duintasunak osotasun bat du.

6 EZBERDINTASUNAK



Erantzun zuzenak:

HITZ EZKUTUA

Eman erantzun zuzena beheko pista hauei eta hitz ezkutua topatuko duzue.

1. Aresoko erreka
2. Herriko etxe
3. Ardi-errai
4. Perretxiko mota bat
5. Erle-etxe
6. Lekale mota bat
7. Animaliak harrapatzea edo hiltzea helburu duen jarduera
8. Artisau
9. Eguneko lehen otordua
10. Ingelesezko, "European Region Action Scheme for the Mobility of University Students" izen ofizialaren akronimoa.
11. Tristura

A crossword puzzle grid with 11 numbered starting points for words:

- 1: 8 letters, horizontal
- 2: 10 letters, horizontal
- 3: 7 letters, horizontal
- 4: 5 letters, horizontal
- 5: 7 letters, horizontal
- 6: 6 letters, horizontal
- 7: 5 letters, horizontal
- 8: 10 letters, horizontal
- 9: 5 letters, horizontal
- 10: 8 letters, horizontal
- 11: 4 letters, vertical

Erantzun zuzenak: 1- Astomela, 2- Udaletxe, 3- Tripote, 4-Onddo, 5-Erauntz, 6-Banabar, 7-Ehiza, 8-Eskulangile, 9- Gosari, 10- Erasmus, 11-Pena.
Hitz ezkutua: Panpanoziri.

MOTZEAN

Richard



- 1. Nola deskribatuko zenuke zeure burua?**
Lagunen lagun ona, familiaren maitasuna behar duena eta parrandazale ikaragarria.
- 2. Ba al duzu lasaitzeko txoko kuttunik?**
Txuineko ikuilua. Bertan erremintak hartu eta lantxoak eginez lasaitzen naiz.
- 3. Zein da garatuen duzun zentzumena?**
Ikusmena, dudarik gabe.
- 4. Mendian, galtza motz edo luzeekin?**
Galtza luzeekin beti.
- 5. Zerk egiten zaitu zoriontsu?**
Lagun artean otordu eder bat egiteak.
- 6. Betirako gordeta daramazun oroitzapena?**
Gure ezkontza eguna.
- 7. Zure bizitzako kantua zein dela esango zenuke?**
Now, we are free. Gladiatorreko soinu-banda.
- 8. Zeintzuk dira zure zaletasunak?**
Futbola eta zinema
- 9. Izoziak, terrinan ala kukurutxoan?**
Kalean kukurutxoan eta etxean XXL terrinan.
- 10. Azkena irakurri duzun liburua?**
Un lugar llamado destino. Lagun on bati esker irakurri nuen. Momentu txar batean nengoela oparitu zidan.
- 11. Amets bat (beteta duzuna, bidean dena, sekula gauzatuko ez dela dirudiena ...)**
Beteta dudana, sortu dudana familia. Bidean dena, Bunoa berritu eta bertan bizitzea eta sekula gauzatuko ez dela ematen duena eta niri asko gustatuko litzaidakeena, nire emaztearekin "Ruta 66" motoan egitea.

Olatz



- 1. Nola deskribatuko zenuke zeure burua?**
Alaia, langilea eta urduri samarra.
- 2. Ba al duzu lasaitzeko txoko kuttunik?**
Txoko konkretu batek baino, paseo bat ematera irteteak lasaitzen nau.
- 3. Zein da garatuen duzun zentzumena?**
Usaimena.
- 4. Mendian, galtza motz edo luzeekin?**
Galtza motzekin nahiago.
- 5. Zerk egiten zaitu zoriontsu?**
Iratzargailurik gabe esnatu, gosari on bat egin eta egun pasa joateak.
- 6. Betirako gordeta daramazun oroitzapena?**
Djiah (gure txakurra) etxera ekarri genuen eguna.
- 7. Zure bizitzako kantua, zein dela esango zenuke?**
Bazkalosteko kafea. Mikel Urdangarinena.
- 8. Zeintzuk dira zure zaletasunak?**
Lagunekin denbora pasatzea, bidaiatzea, mendira joatea...
- 9. Izoziak, terrinan ala kukurutxoan?**
Kukurutxoan.
- 10. Azkena irakurri duzun liburua?**
La Chica de Nieve.
- 11. Amets bat (beteta duzuna, bidean dena, sekula gauzatuko ez dela dirudiena ...)**
Nire ametsa, urteetan pentsatu eta diseinatu dugun etxea eraikitzea zen eta bete da. Bidean dena berriz, autokarabana batean Norbegian zehar bidaiatzea da eta nahiago dut pentsatu amets guztiak bete litezkeela.